



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

---

2023ko bigarren hiruhilekoa



**LABORAL**  
kutxa

# AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera .....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak .....	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak .....	19
Eranskina – Metodologia .....	23
Fitxa Teknikoa .....	26

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

---

- EAEko familien konfiantza, hobekuntzaren bidean
- Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasun handiagoa
- baita Europako herrialde nagusietan ere




# 1 EAEko familien konfiantza, hobekuntzaren bidean

EAEko familien konfiantza 2 puntutan hobetu da 2023ko bigarren hiruhilekoan, baina oraindik ere balio negatibotan dago. Zehazki, EAEko familien konfiantza-indizea -7 puntukoa da. Beste nolabait esanda, 2022ko bigarren hiruhilekoko antzeko baliotan dago.

Denbora-tarte zabalagoari erreparatuta, EAEko familien konfiantzaren bilakaerak azken hiru urteotako ziurgabetasuna islatzen duela jabetuko gara. Izan ere, ezkortasuna (pandemia-2020 eta Ukrainako gerra eta inflazioa-2022) eta baikortasuneko uneak (pandemiatik irtetea-2021) jasotzen dituen gorabeherak ikus daitezke. 2023ko lehen bi hiruhilekoen 2022ko ezkortasuna leundu egin dute eta neutraltasunetik gertu dauden balioetara itzuli da. 2023ko bigarren seiuhilekoari dagokionez, susperraldia sendotu egingo dela espero da.


Kontsumitzailearen konfiantza. EAE



## 2 | Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasun handiagoa

Estatuko eta EB-27ko familien artean, aurreko hiruhilekoetan ikusitako dinamika mantendu da eta, EAEko familien artean gertatu den moduan, konfiantza zertxobait berreskuratu dute (+2 puntu). Hobekuntza ikus daitekeen arren, Estatuko (-21) eta EB-27ko (-19) familien konfiantza-indizea oraindik ere EAEko familiena (-7) baino nabarmen ezkorragoa da.

2022ko bigarren hiruhilekotik bizi izandako ziurgabetasunak gogor kaltetu zuen Europako eta Estatuko familien konfiantza eta oso balio negatiboak izan zituzten. Dena den, ezkortasuna kontrolatzeko joera ikusi zen. 2023an izan dezaketen hobekuntza-joera hori testuinguru inflazionistari eustearen eta gizarte bakoitzak arlo ekonomikoan eta enpleguan erakusten duen erresilientziaren mende egongo da.



1. II. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-maiatza batez bestekoa.


### 3 baita Europako herrialde nagusietan ere

Aukeratutako Europako herrialdeak bat datoz familien konfiantzaren susperraldi-profilari dagokionez. Hala, 2023ko bigarren hiruhilekoan, Frantziak (+3 puntu), Alemaniak (+4 puntu), Danimarkak (+4 puntu) eta Herbehereek (+2 puntu) EAEko familien antzeko konfiantzaren hobekuntza izan dute.

Hobekuntza izan duten arren, Frantziako (-18), Alemaniako (-13) eta Herbehereetako (-18) familien ezkortasuna Danimarkako (-8) eta EAEko familia baina handiagoa izan da (horiek ez dira horren ezkor agertu).

Konfiantza nagusi den testuinguru horretan, erabakigarria izan da testuinguru inflazionistaren inpaktu partikularizatua. Izan ere, erreferentziatzko interes-tasen<sup>2</sup> igoerak eragin ditu eta, hortaz, familien eguneroko erosketarekin eta aurrezki-inbertsioarekin lotutako erabakiak baldintzatu.

#### Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziatzko herrialdeak



1. II. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-maiatzak batez bestekoa.
2. Maiatzeko Euriborra % 3,939koa izan da

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

---

- ekonomia orokorrarekiko igurikimenek ezkorrak izaten jarraitzen dute
- langabeziaren inguruko igurikimenak ia baikorrak dira
- familiako ekonomiaren gaineko igurikimenek geldirik jarraitzen dute
- aurreztearekin lotutako igurikimenak berriro ere positiboak dira
- konfiantza suspertu da, ia elementu guztietan oinarrituta


## 4 | ekonomia orokorrarekiko igurikimenek ezkorrak izaten jarraitzen dute

Suspertu egin dira hurrengo hamabi hilabeteotako egoera ekonomiko orokorraren bilakaeraren inguruan EAEko familiek dituzten igurikimenak (-16; +3 puntu) eta atzera geratu dira 2022ko bigarren sei hilekoan ikusitako balio oso ezkor haiek (-37 eta -39 hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan).

Emitza horrek agerian uzten du EAEko familien heren batek baino gehixeagok (% 34,0) uste duela egoera ekonomikoa berdin mantenduko dela. Aldiz, ugaritu egin da egoera hobetu egingo dela uste dutenen taldea (% 20,4; ehuneko +2,3 puntu), eta jaitsi egoera okerragoa izango dela uste dutenena (% 45,6; ehuneko -1 puntu).

Eustaten arabera, Euskadik 2023ko lehen hiruhilekoan izandako igoera ekonomikoa % 2,3koa (urte arteko tasa) izan da eta zifra horrek hobetu egin ditu apirilean aurkeztutako aurrerapen-datua (+% 2,2) eta Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspena<sup>1</sup> (+% 2,1). Beste nolabait esanda, bilakaera ekonomikoa aurrez ikusitakoa baino hobea izan da, baina ez dirudi familien igurikimenean eragin handia izan duenik.

### Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE






## 5 | langabeziaren inguruko igurikimenak ia baikorrak dira

Azpitarratu beharrekoa da 2023ko bigarren hiruhilekoan EAEko familien artean ikusitako konfiantzaren hobekuntza, neurri handi batean, langabeziaren bilakaerarekin lotuta EAEko familien igurikimenean oinarrituta dagoela. Izan ere, nabarmen hobetu da indize hori (+6 puntu) eta, horri esker, zeinu-aldaketa gertatu da, eta 2022ko bigarren hiruhilekotik lehen aldiz, berriro positiboak dira (0,15).

Susperraldi hori langabezia hurrengo hamabi hilabeteotan handitu egingo dela uste duten familiek izandako jaitsierak (% 27,3; -7,6 puntu) eta jaitsi (% 30,8; +4,1 puntu) edo egungoen antzeko mailatan mantenduko dela (% 41,9; +3,5 puntu) uste duten familien artean gertatutako gorakadak eragin du.

Familien igurikimenak Gizarte Segurantzako afiliazioarekin (2023ko maiatza) lerrotuta daude. Afiliazioa 1.002.586 pertsonakoa izan da Euskadin eta, horrenbestez, maximo historikotan dago. Era berean, eragina izan du erregistratutako langabeziak (107.275 pertsona), jaisten ari baita (-% 5,4 urte arteko tasan). Horrenbestez, afiliazioaren eta langabeziaren bilakaera nabarmen izan da positiboa.




## 6 | familiako ekonomiaren gaineko igurikimenez geldirik jarraitzen dute

Familiako ekonomiaren inguruan EAEko familiek dituzten igurikimenez negatiboak izaten jarraitzen dute (-11) eta lehen hiruhilekoan lortutako emaitzarekin alderatuta (-10, -1 puntu) geldirik daude. Dagoeneko hamasei hiruhileko negatibo izan dira jarraian, baina 2022ko emaitza okerrenetatik (-25 eta -21 hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren) aldentzen ari direla ikus daiteke.

Familiako egoera ekonomikoaren igurikimenez izandako emaitza hori egoera hobetu egingo dela uste duten familien taldeak izandako jaitsierak (% 9,2; ehuneko -1,1 puntu) eta okertu egingo dela uste dutenek izandako igoerak (% 28,6; ehuneko +1,5 puntu) eragin du.

Familiako ekonomiaren inguruko igurikimenez langabeziarekin (0) eta prezioekin (-4) lotuta daude. Dena den, bi adierazle horietan izandako susperraldi hori (oraindik) ez da nahikoa izan familiako ekonomiaren gaineko igurikimenez hobekuntza nabarmena bultzatzeko. Izan ere, orain 1-2 urte baino nabarmen altuagoa den prezio mailaren eragina jasan dute nahiz eta igoera-profila (inflazioa) moteltzen ari den.

### Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenez. EAE




## 7 | aurreztearekin lotutako igurikimenak berriro ere positiboak dira

Bigarren hiruhilekoan, EAEko familiek hamabi hilabetera begirako beren aurrezteko gaitasunaren inguruan dituzten igurikimenak hobetu egin dira (+3 puntu) eta berriro ere balio positibotan daude (1), hiru hiruhilekotan negatiboak izan ostean. Dena den, oraindik ere 2021eko bigarren hiruhilekoaren eta 2022ko lehen hiruhilekoaren artean izandako balio (bereziki) altu haietatik aldentuta daude.

Hurrengo hamabi hilabeteotan aurreztu ahal izango dutela uste duten (ziurrenik edo seguru) familien artean gertatu den igoera txikiak bultzatu du emaitza hori; izan ere, erdia baino gehiago dira (% 52,9; ehuneko +1,6 puntu). Aldiz, hurrengo urtean ezingo dutela aurreztu dioten familien taldeak zertxobait egin du behera (% 47,1; ehuneko -1,6 puntu).

*Aurrezteko gaitasuna (gordina) familiako diru-sarrera eta gastu arrunten arteko diferentziala da; aurrezteko erabakiek aurreztearekin lotutako ordainketaren erakargarritasuna eta gaitasuna konbinatzen dituzte Erreferentziazko interes-tasen igoera-joerak (hamabi hilabeterako Euriborra, % 3,939, maiatzean, Espainiako Bankua) eragin bizkorra izan zuen kredituetan eta orain, 2023an aurrera goazen garaiotan, hasi da aurrezkiaren ordainketan islatzen (banku-gordailua). Hori guztia faktore sustagarria izan daiteke.*

### Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



## 8 | konfiantza suspertu da, ia elementu guztietan oinarrituta

2023ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzaren lau elementuetako hiru hobetu egin dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Langabeziarekin (0, +6 puntu) eta aurrezkiarekin (1, +3 puntu) lotutako indize partzialak suspertu egin dira eta positiboak dira. Bi emaitza horiek funtsezkoak dira konfiantzaren bilakaeran.

Bestalde, familiako ekonomiarekin lotutako indizea oraindik ezkorrak (-11) diren balioetan egonkor (-1 puntu) geratu da. Seguru asko, horretan eragina izango zuen prezioen inpaktuak; izan ere, gutxiago hazten ari diren arren, orain 1-2 urte baino maila altuagoetan finkatu dira.

Ekonomia orokorraren indizearen emaitza erabakigarria da; izan ere, hobetu (+3 puntu) egin den arren, oraindik ere ezkorrena da (-16) eta horrek gutxitu egin du beste hiru elementuek konfiantza suspertzeko garaian emandako bultzada.

### Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	IIIH-22	IVH-22	IH-23	IIIH-23	Aldea	
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	-22	-23	-9	-7	+2	▶
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-37	-39	-19	-16	+3	▲
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-25	-21	-10	-11	-1	▶
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	-18	-14	-6	0	+6	▲
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	-6	-17	-2	1	+3	▲

↔ (±2 puntuko aldea)

# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

---

- EAEko familiek uste dute prezioak gutxiago igoko direla
- erosteko unearen balorazioa hobetu egin da
- eta erosketa handiak egiteko igurikimenak suspertu, eta ia positiboak dira
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoa mantendu egin da
- hobekuntza kontsumo handiko igurikimenean, balio positibotara iritsi gabe




## 9 EAEko familiek uste dute prezioak gutxiago igoko direla

EAEko familien artean, ezkortasun-tasa gero eta txikiagoa da prezioen igoerarekin<sup>1</sup> (-4) lotutako igurikimenetan. Emaitza hori zertxobait hobetu da aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta (-7), eta 2022ko (orduan hasi zen gaur egungo inflazio-egoera) datuetatik aldendu da (-34, -52, -57, -51, lehen hiruhilekotik laugarren hiruhilekora arte).

Hurrengo hamabi hilabeteotan prezioak orain baino bizkorrago haziko direla (% 35,8; -3,2 puntu) uste duten familien taldeak izandako jaitsieraren ondorioz gertatu da hobekuntza. Datu horiei kontrajarrita daude prezioak orain arteko erritmo berean igoko direla uste dutenek izandako igoera (% 32,2; +2,9 puntu) eta mantsoago igoko direla uste dutenen taldea sendotu izana (% 32,0; +0,3 puntu).

Igurikimen horiek bat datoz EAEko (+% 4,2 eta +% 6,8) eta Estatuko (+% 4,1 eta +% 6,6) inflazioaren beheranzko kurbarekin (KPI orokorra eta azpikoa<sup>2</sup>, urte arteko tasan, apirilean). Horri guztiari esker, 2024rako aurrez ikusitako % 2ko igurikimena (KPI orokorra) sinesgarria izan daitekeela esan dezakegu. Hain zuzen ere, aurreratutako datuek (maiatza) baieztatu egin dute joera hori (KPI orokorra eta azpikoa, +% 3,2 eta +% 6,1 Estatuan).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?<sup>1</sup> (pertsonek %a)



<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetako dagokienez; <sup>2</sup> Prestatu gabeko elikagaiaketa produktu energetikoak kenduta

## 10 | erosteko unearen balorazioa hobetu egin da

**Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?**


Prezioen igoerarekin (-4) eta familiako ekonomiaren egoerarekin (-11) lotutako igurikimenak erabakigarriak dira familien erosketa-unea baloratzeko garaian. Hain zuzen ere, bi adierazle horien bilakaerak agerian utzi du erosteko unearen balorazioan izandako hobekuntza (+7 puntu lehen hiruhilekoarekin alderatuta), baina ez da nahikoa izan indizearen zeinua aldatzeko, oraindik ere negatiboa baita (-25).

Hain zuzen ere, ugaritu egin da berdin zaiola dioten familien taldea (% 58,3; ehuneko +4,9 puntu), eta bere horretan mantendu da une ona dela diotenena (% 8,2; ehuneko +0,8 puntu). Aldiz, une txarra dela uste dutenen taldeak jaitsiera (% 33,5; ehuneko -5,7 puntu) izan du. Horrekin lotuta, balorazio orokorra hobetu den arren (+7 puntu), horrek ez du igurikimen negatiboan eraginik izan (-25), berdin zaiola adierazi dutenen taldearen proportzioa handitu delako.

### Erosteko unearen balioztapena<sup>1</sup>

(pertsonek %a)

- III H 2022
- IV H 2022
- I H 2023
- II H 2023



<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetarako dagokienez Une egokia

Berdin da

Une desagokia

# 11 eta erosketa handiak egiteko igurikimenak suspertu, eta ia positiboak dira


**Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan<sup>1</sup>?**

EAEko familien artean, erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizeak hobetzen (+2 puntu) jarraitzen du eta negatibotasunetik ateratzen hasi dela dirudi (-7 eta -5, lehen eta bigarren hiruhilekotan).

Hobekuntza haien erosketa handiak askoz ere edo zertxobait handiagoak izango direla aurreratu duten familien igoerak (% 19,7; +1 puntu) eta berdinak izango direla (% 52,4; -0,4 puntu) edo zertxobait edo askoz ere txikiagoak izango direla (% 27,9; -0,6 puntu) uste dutenen jaisierak eragin du.

Beste nolabait esanda, hobetzen ari da indizearen emaitza, baina oraindik ere ez da hautematen profil-aldaketarik (nabarmen positiboak diren balioetara igarotzea). Ondorioz, joerari dagokionez, ezin aurrera daiteke azken urtean egindako erosketa handien bolumenarekiko aldaketa gertatuko denik. Gainera, finantzaketa-kostua igo izana erosketa-erabakietarako oztopo erantsia izan daiteke edo, zenbait kasutan, baita erabakia geldiarazteko arrazoia ere.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan<sup>1</sup>




<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetara dagokienez.




## 12 | etxebizitza edo autoa erosteko asmoa mantendu egin da

EAEko familien % 1ek (gutxi gorabehera) adierazi du hurrengo hamabi hilabeteotan etxebizitza erosiko duela (ia ziur). Ratio hori aurreko hiruhilekoekiko egonkor mantendu da eta, batez ere indartu egin da ziur ez duela erosiko dioten familien taldea. 2023ko lehen hiruhilekoan (eskuragarri dagoen azken datua), etxebizitzaren salerosketako<sup>1</sup> 6.317 eragiketa formalizatu dira (-% 3,1 urte arteko tasan). Seguru asko, finantzaketa garestitu izana egongo da horren atzean.



Gainera, mantendu egin da hurrengo hamabi hilabeteotan ibilgailua erosiko duela dioten familien taldea (% 4,8, +0,3 puntu), eta hamarretik bederatziki baino gehiago dira ez dutela erosiko diotenak. Hala, ibilgailu berrien matrikulazioa<sup>2</sup> igo egin da apirila-maiatzean (+% 7,7 urte arteko tasan), eta ez dugu ahaztu behar hobekuntza hori oso negatiboa izandako ekitaldiaren (2022) ondoren gertatu dela.



<sup>1</sup> EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); <sup>2</sup> Anfac.

## 13 | hobekuntza kontsumo handiko igurikimenean, balio positibotara iritsi gabe

EAEko familien inbertsioarekin eta kontsumo handiarekin lotutako igurikimenean hiru indizeak hobetu egin dira urteko bigarren hiruhilekoan, baina oraindik ere ez dira balio positibotara iritsi. Horrekin lotuta...

- Prezioen bilakaeraren inguruan EAEko familiek adierazitako igurikimeneak hobetu (-4, +3 puntu) egin dira. Horrek prezioen igoeran dezelerazioa gertatuko dela aurreratu du eta hori guztia dagoeneko % 4 baino txikiagoa den inflazioaren joerarekin (KPI orokorra, maiatzeko datu aurreratua) lerrokatuta egongo litzateke.
- Erosketa handiak egiteko oraingo unearen inguruko balorazioa da igoera handiena izan duen adierazlea (+7 puntu), baina ez da nahikoa izan emaitza aldatzeko. Izan ere, emaitza hori da aztertutako hiru indizeen artean negatiboa oraindik ere (-25).
- Zertxobait hobetu dira (+2 puntu) erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimeneak eta ez dira horren negatiboak izan (-5). Hala, joera nahiko laua izango dela iragar daiteke (egungo antzeko bolumenetan). Etxebizitza eta/edo ibilgailua erostearekin lotutako igurikimeneak egonkorrak dira.

Emaitza horiek guztiek agerian utzi dute ezohikoak diren egoeren kateaketaren (pandemia, inflazio-egoera berezia eta interes-tasen igoera, besteak beste) aurrean EAEko familiek izandako egokitzapena. Horren guztiaren ondorioa ekonomia eta enplegu arloko emaitza ona izan da. Hain zuzen ere, enpleguaren (soldata-egonkortasuna eta soldadari eustea) eta kreditu-kostuaren eta aurrezkiaren ordainketaren (biak ari dira gorantz egiten) bilakaera erabakigarriak izango dira urtean zehar familiek erosketa handiak eta inbertsioak egiteko erabakiak hartzeko garaian.

### Kontsumoari buruzko igurikimenean beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	III H-22	IV H-22	I H-23	II H-23	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimeneak	-20	-22	-41	-48	-57	-51	-7	-4	+3	▲
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-36	-40	-32	-25	+7	▲
Erosketak egiteko igurikimeneak	0	-12	-2	-11	-14	-18	-7	-5	+2	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

# ERANSKINA – INDIZEAK

---

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



# I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	III H-22	IV H-22	I H-23	II H-23	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	-22	-23	-9	-7	▲
• Estatua*	-6	-22	-13	-26	-33	-28	-23	-21	▶
• EB*	-6	-15	-8	-23	-28	-26	-21	-19	▲
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-18	-21	-20	-21	-18	▲
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-26	-25	-17	-13	▲
○ Danimarka*	--	--	5	-14	-18	-19	-12	-8	▲
○ Herbehereak*	--	--	-4	-25	-30	-29	-20	-18	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE									
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-37	-39	-19	-16	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-25	-21	-10	-11	▶
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	-18	-14	-6	0	▲
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	-6	-17	-2	1	▶
Beste indize batzuk. EAE									
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-57	-51	-7	-4	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-36	-40	-32	-25	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-14	-18	-7	-5	▶
Erosketa handiak. EAE.**									
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	1,0	0,8	0,8	1,1	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	7,0	2,5	4,5	4,8	▶

↔ (± 2 puntuko aldea)

\* II. hiruhileko datuakapirila-maiatza batez bestekoari dagozkie.

\*\* Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

## II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>2021</u>	<u>2022</u>	<u>III H-22</u>	<u>IV H-22</u>	<u>I H-23</u>	<u>II H-23</u>	
<b>Kontsumitzaileen konfiantza-indizea</b>									
• EAE	-2	-22	-6	-11	-22	-23	-9	-7	▲
Adin-mailak									
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-4	-17	-11	-11	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-27	-27	-9	-7	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-30	-23	-7	2	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-29	-23	-10	-8	▶
Lan egoera									
• Landuna (soldatapekoa/norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-19	-22	-9	-5	▲
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-25	-31	-23	-20	▲
• Ez-aktiboa (erretiratu, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-26	-22	-7	-5	▶
Familia-unitatearen hileko errenta									
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-31	-33	-19	-22	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-22	-21	-5	-5	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	-14	-15	-2	4	▲

⇔ (±2 puntuko aldea)

### III | beste adierazle batzuk

	II H – 22	III H – 22	IV H – 22	I H – 23	II H – 23 <sub>p</sub>	(azkena)
BPG	5,0	3,8	2,9	2,3	--	I hiruhilekoa
Familien kontsumoa	3,2	2,7	2,3	1,7	--	I hiruhilekoa
Afiliazioa	0,9	-1,0	1,7	-0,3	1,1	apirila-maiatza
Erregistratutako langabezia	-2,4	-1,1	-1,0	0,3	-3,4	apirila-maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	2,4	0,0	1,5	2,8	--	I hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-5,3	-1,5	-16,9	25,1	--	I hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	26,7	-18,8	22,8	-3,0	7,7	apirila-maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketan estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzeko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziatzeko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

# ERANSKINA– METODOLOGIA

---

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




# I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleak:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea<sup>1</sup> kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



<sup>1</sup> *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.



## II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobearainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

## **Fitxa teknikoa**

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2023ko maiatzaren 8tik 19ra (2023ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

## **Metodologia**

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea [http://ec.europa.eu/economy\\_finance/db\\_indicators/surveys/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm)